

P

U

L

U

N

P

E

2

0

0

**ARGITARATZAILEA AMETZA  
KULTUR ELKARTEA**

**PULUNPE SAREA**

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi,  
Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia,  
Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken  
parte hartzen duzuenak, banatzaileak,  
etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

**EMAILA**

pulunpe@gmail.com

**ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK**

Txurdan eta Patxi Irurtzun.

**KOORDINATZAILEAK**

Aitziber Lizeaga, Garazi  
Zabaleta eta Itziar Perez

**TIRADA**

1.700 ale

**INPRIMATEGIA**

Gertu

**MAKETAZIOA**

Zas Komunikazioa

**AZALEKO ARGAZKIA**

200. alerako Maite Mutuberría  
ilustratzaile Eltzaburuarrak  
egindako azal berezia.

**LEGE GORDAILUA**

NA 721/93

Inprimategira urriaren 13an bidalia



**ZUHAITZARI POEMA**  
*Tagore Rabindranath*

**Bidaiari, entzun:**

“ *Ni naiz, zure sehaskaren ohola, zure txaluparen zura,  
zure mahaiaren gaina, zure etxearen atea.*

*Ni naiz, zure lanabesaren kirtena,  
zure zahartzaroko bastoia.*

*Ni naiz, elikatzen eta oparitzen zaituen fruitua,  
babesten zaituen itzal ongilea  
udako kizkaltzearen aurka,  
txorien aterpe atsegina  
kantuz zure orduak alaitu zituztenak  
eta zure landak insektuez garbitzen dituztenak.*

*Ni naiz, paisaiaren edertasuna,  
baratzeko xarma,  
mendiko ikurra,  
bideko ertza...*

*Ni naiz, berotzen zaituen egurra  
negu egunetan,  
oparitzen dizun lurrina  
eta ordu guztietan airea gantzutzen duena,  
zure gorputzaren osasuna  
eta zure arimaren poza.*

*Guzti honengatik, begiesten nauzun bidaiari,  
zu, zeure eskuez landatu ninduzun hori  
seme deizadakezu,  
edo hainbatetan ederretsi nauzuna,  
so egidazu onez, baina...  
ez iezaidazu minik egin.* ”



## Angel Gartzia: “Ia ezinezkoa iruditzen zitzaigun hasieran horrelako aldizkari bat aurrera eramatea”

Pulunpe aldizkariaren sortze prozesuan egon zen Angel Gartzia ultzamarra, beste hainbat lagunekin batera. Ilusio handiz ekin zioten proiektuari, baina lehen alea esku artean izan arte benetan eginen zutela sinestea kostatzen zitzaiera ere onartzen du. 1992a zen, ia hiru hamarkada igaro dira geroztik, eta 199 Pulunpe ale. Hasiera haiek gogoratu ditugu Gartziarekin.

### • NOLA GOGORATZEN DITUZU PULUNPEREN HASIERAKO URTEAK?

Gogoan dut ilusio handia genuela. Lehendabiziko zenbakia batez ere AEKren bueltako jendeak bultzatu zuen. Euskaltegia zegoen Iraizotzen, eta lehendabiziko bilerak han egiten genituen. 12 bat laguneko taldetxoak elkartzen ginen. 1992ko abenduan atera zen lehen alea, baina maiatzaren inguruan hasi ginen lanean. Aldizkaria atera zenean ez genuen ia sinistu ere egiten lortu genuela, guk ez baikenekien kazetaritzaz, informatika aldetik ere ez genuen ja kontrolatzen, argazkilaritza ere ez zen orain bezala... Poliki-poliki ikasten eta martxa hartzen joan ginen.



Lehenengo Pulunperen azala ▲

### • ZEIN ZEN EUSKARAZKO ETA TOKIKO ALDIZKARI BAT SORTZEAREN HELBURUA?

Ultzama aldea nahiko motel ikusten genuen alor guztietan, baina garai hartan mugimendua hasi zen pixkanaka gizarte eta kultura arloan, kirol batzordea ere martxan jarri zen, eta baita jubilatuen elkarte ere. Momentu horretan, euskarak ere bultzada bat behar zuela ikusten genuen guk, eta horretarako hasi ginen lanean.

### • ZER NOLAKO ERANTZUNA IZAN ZUEN ALDIZKARIAK HERRITARREN ARTEAN?

Pulunperen aurretik saiatuak ziren Ultzama aldean Saioa aldizkaria martxan jartzen: elebiduna zen aldizkari hura, baina zenbaki bakarra atera zen. Orduan, lehen zenbakia atera genuenen askok zalantza eginen zuten oraindik, baina gero jarraipena izan zuela ikusitakoan erantzun ona izan zuen. Hiruhilabetekaria zen hasieran, baina gure ametsa zen noizbait hilabetekari izatera pasatzera.

### • BALIABIDE TEKNIKOAK EZ ZIREN GAUR EGUNGOAK. ZEIN ITXURA ZUEN HASIERAKO PULUNPE HARK?

Dena zuri-beltzean zen, koloretan inprimatzea oso garestia zelako. Material eta eduki guztiak ordenagailuan tekleatu eta sartzea zerbait arras berria zen guretzat: diskete handi batzuetan grabatzen



▲ Angel Gartzia ultzamarra izan zen Pulunperen hastapenetako kide bat

ziren edukiak, eta hori inprimategira bidali. Atarrabiako inprimategi batera eramaten genuen, eta han ere prozesua oso motela zen, horregatik ematen genuen denbora aunitz ale bakoitzarekin. Dena zen ttarrapattaka.

### • ZEIN EKARPEN EGIN DIO PULUNPEK GURE ESKUALDEARI URTE GUZTI HAUETAN?

Pulunpe bezalako aldizkari txiki batek, garai hartan hiruhilabetekari zenak, eragin gutxi izan zezakeela dirudi, baina gaur egungo aldizkaria ikusita, maiztasun handiagoarekin ateratzen dena, argazkiekin, koloretan inprimatuta... uste dut aurretik egin genuen lana hor dagoela.



## Lehengai ekologikoa arazo bihurtu da

Gauzak aldatzen direla edonork daki. Gaur egun, industriari esker, oihal mota desberdin asko ditugu eskura eta ez dugu neguko jantziak egiteko artilerik behar. Orain dela urte batzuk koltxoiak ere artilez betetzen ziren, askok egin izanen dute lo halako batean. Hau ere zaharkitua geratu da, koltxoigintzan ez da artilerik erabiltzen gaur egun. Bata dela eta bestea dela, lehen artilez egiten ziren etxeetan beharrezko ziren hainbat gauza baina orain beste material batzuekin egiten dira. Orain zertarako erabiltzen dugu, bada, artilea? Deuserako, hori da egia, artilea arazo bihurtu da. Ezertarako balio ez duen lehengaia.

### • NOLA BIHURTU DA ARTILEA ARAZO?

Gezurra badirudi ere, Latxa ardien artaldea non, arazoa han. Urteak dira abeltzainek gero eta buru gehiago behar dutela haien abereei bizitzeko haina etekin ateratzeko. Dena gora doa eta lanaren ordainak eskas jarraitzen du. Aspaldiko kontuak. Baina bada denbora bat, bi hiru urte, inguruko nekazariak arazo gutxi bazituzten, beste bat agertu zaiela.

Xabier Azpirozek adierazi digunez: "Orain dela denbora gutxi arte, artilea

izan da ardien produkzioan lehengai nagusia. Produktu oso preziatua eta baloratua, dirua ematen zuena."

Aspaldiko kontua da, gure aitona- amonei entzuna, artaldea mozteko garaia noiz iritsi egoten zirela. Jasotako artilea saldu eta diru horrekin negurako behar zuten alfalfa, edo bestelakoa erosten zuten. Nahiz eta mozteak lana suposatu, etekina ateratzen zitzaion artileari. Jantziak eta halakoak egiteko erabiltzen zuten artilea, koltxoi eta bulkoak betetzeko, eta abar.

Gero dirudienez, Txina, India eta halako merkatuetan saltzen omen

zen. Baina, gaur egun, merkatu hauek ez dute jada Latxa artilerik nahi eta diru iturria arazo bihurtu da.

Paradoxa badirudi ere, lehen gai ekologiko honek ez du berrerabilia izateko irtenbide erraza. Produktu honek, gaur egungo produktu erakargarri baten baldintza guztiak betetzen ditu: lehengai ekologikoa da, gurea, kilometro Okoa, oso ugaria eta ustiatzeko ez da zaila eta gainera ustiatzeko prozesua ez da inolaz kontaminatzailea. Baldintza ia guztiak betetzen ditu, bat izan ezik: ez du merkaturik.



Latxa artalde bat mendian ▲



#### ▼ Basaburuko azokan ardiari ilea mozten



#### ARTILEA HONDAKIN BIHURTUTA, KUDEATU EGIN BEHAR DA.

Beraz, lehengai hau orain hondakina besterik ez da eta horrela tratatu behar da. Baina hau ere ez da erraza. Irtenbidea ez da txoko batean uztea han ustel dadin, Latxa ardiaren artilea, ilea da eta beraz ez da nolnahi usteltzen. Su ematearena ere ez da ba bidea. Ez du sugarrrik ateratzen eta ez da ongi erretzen.

Gure eskualdeko abeltzain guztiek aukera bakarra dute Latxa ardiaren artileari irtenbidea emateko, Artaxoako konpostaje organikoko plantara eramatearena.

Inaxio Juanbeltzek esan digunez: "Basaburuan edukiontzi handi bat jartzen da, Udalak abisua ematen die abeltzainei eta hauek edukiontzi handi horretara botatzen dute artilea, eta gero kamioi batek Artaxoako plantara eramaten du." Guzti honen gastua Udala eta abeltzainen artean ordaintzen dute. Ultzaman ere berdin egiten dute, baina Martin Pikabea bertako alkatearen esanetan: "hemen abeltzainen artean ordaintzen dute gastua".

Gure eskualdeko beste abeltzainek ere arazo berdina dute. Latasako Alfredo Irurek badu, esan digunez, kamioi txiki bat eta berak artilea bildu eta Artaxoara eramaten du. Dioenez: "Artilea hor uztearren 40 euro inguru kobratzen didate tonako eta nik urtean 1.800 bat kilo eramaten ditut. Moztearen gastua kontuan eduki gabe, urtean, artilearen kudeaketa 150 euro edo kostatzen zait". Honela dago gaur egun gauza. Lehen diru sarrera bat zena, gero debalde eramaten zuten eta orain ordaindu egin behar dute norbaitek kudea dezan. Dena den oraindik ere Latxa ez den beste ardiaren artilea, doan bada ere eramaten dute. Hau da Lantzen artalde handiena duen abeltzainaren kasua, Fermin Martikorenak 400 buru ditu baina Rasa Navarra arrazakoak direnez, artilearekin ez du arazorik, debalde bada ere eramaten baitiote. Bai ordea besteek. Lantzen ardi Latxak dituztenak hasi dira irtenbidea bilatu nahian eta kasu honetan beste Udalerriaren batekin akordioa egin eta hondakina Baztan edo Ultzamako edukiontzira botatzea ikusten dute, gastuak gain hartuta beti ere, Luis Mariñelarenak esan digunez.

#### ARTAXOAKO PLANTAN JASOTZEN DU TRATAMENDUA ARTILEAK ETA KONPOST BIHURTZEN DUTE

Lantegi honetako Santiago Ruiz arduradunak azaldu dizkigu prozesu guztiaren gakoak.

Lehenik artilea industria jatorrizko beste hondakin organikoekin nahasten da. Guzti hau behartutako aireztatze tunelean sartzen da eta honek nahasketari haizea isurtzen dio. Tunel honetan hilabete bat egon ondoren, beste hilabete bat egon behar du nahasketak haizerik gabe.

Bi hilabeteko prozesu hau, artilea konpostatzeko, bi edo hiru aldiz egin behar da ongi desegin dadin. Bigarren hilabetea pasa eta berritik hasi behar da. Prozesu guztiak sei hilabete

behintzat irauten du. Tuneletik atera eta kanpoan ontzen da lortutako konpost organikoa. Produktua patogenoz garbi dago, higienizatua, bestela ez bailitzateke erabilgarri izango simaur gisa nekazaritzan. konpost organiko hau Nafarroan eta ondoko beste herrialdeetan ere saltzen dutela esan digu Santiagok, baina zaila omen da salmenta.

Artilea simaur organiko bihurtzeko prozesua luzea da eta ez du errentagarritasun handirik.

#### ARTILEAREN INGURUAN BADA IKERKETA BAT, BESTE ETEKINEN BAT ATERA AHAL IZATEKO

Isolatzailerik termiko gisa etxeetan erabiltzeko ahaleginak egin dira, baina badirudi bide hori bertan behera geratu dela, artileari mozorroren bat ateratzen baitaio. Hori saihesteko ikerketak momentuz ez du jarraitzen.

Baina beste irtenbide batek indarra hartu du, Latxa Artile proiektuaren eskutik alkandora bat sortu dute, Artile Jacket izenekoa. Artilea oinarri duela, oihal berri bat sortu nahi dute eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ternua enpresak bat egin dute. Proiektu honetan, bestalde, beste herrialdeetako enpresa zein elkartek ere parte hartu dute. Iletegia, Lapurdiko enpresa, Bizkaiko Muturbeltz elkarte eta Antzuolako gaztandegi batek besteak beste.

Ikusteko dago ikerketa honek nolako fruituak ematen dituen, baina itxaropen puntu bat ireki da.

Artisauren bat ere bada artilea lehengai hartu eta bere produktuak egiten dituen, baina oraindik produkzio hau ez da nahikoa sortzen den artile kopurua kudeatzeko. Beraz, momentuz, ezin da artisau produkzioa irtenbidetzat hartu.

Pena bada ere, horrela daude gauzak. Lehengai galduta eta abeltzaintzat gastua. Nork esanen lieke gure aitona-amonei halakorik ikusiko genukeela. Gauzak aldatzen dira.



## Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Horixe da aurtengo Euskaraldiaren leloa. Aurten, azaroaren 20tik abenduaren 4ra izanen dugu berriz ere gure hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera; izan ere, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da Euskaraldia. Kolektiboki jokatzek ematen duen babesarekin errazagoa da konpromisoa hartzea ulertzen dutenei euskaraz egiteko eta ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteko.

Gogoan izanen duzue aurreko edizioan parte hartu zenutenek ahobizi eta belarriprest rolen artean aukeratu behar izan zenutela; aurtengoan, berriz, bada berrikuntza bat: arigunea osatzea da modu kolektiboan parte hartzeko modua, hau da, udaletan, dendetan, ostatuetan, ikastetxeetan, lantegietan, elkarteetan... kide guztien edo batzuen adostasunarekin, hizkuntza ohituak aldatzeko eta euskaraz egiteko erabakia hartzea.

Ahobizi edo belarriprest izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jarrerarekin baizik. Ahobizi izatea aukeratzen baduzu, euskaraz eginen diezu ulertzen duten guztiei, eta ezagutzen ez dituzuenekin lehen hitza euskaraz eginen duzu; belarriprest bazara, berriz, euskaraz dakiten guztiei euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu, nahiz eta zuk euskaraz edo erdaraz erantzun.

Hortaz, rola aukeratzeko orduan kontuan hartu beharrekoa da zein jarrera hartuko dugun, eta horren arabera geure buruarekin zintzo jokatu. Duela bi urte askoz ere gehiago izan ziren ahobiziak; eta, halere, behin eta berriz azpimarratzen da belarripresten garrantzia. Sekulako aurrerapausoa litzateke euskaraz ulertzen baina hitz egiteko zailtasunak duten guztiekin euskaraz egiteko adostuko bagenu.

Parte-hartzaile bakoitzak rol bakarra hartu behar du, eta izena ematen duten guztiei identifikatzeko txapa banatuko zaie, azaroaren 20a baino lehen. Arigune gisa izena emateko epea irailaren 27an bukatu zen, eta irailaren 24an hasi zen norbanakoek izena ematekoa. Beraz, lehenbailehen izena eman euskaraldia.eus helbidean edo 948305134 telefonora deituz.



Duela bi urteko euskaraldia kanpaina ▲



# Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@gmail.com



Euskara  
errazeko  
artikulua

## Pulunpeko VI. Argazki Lehiaketako irabazleak



1. Saria:

**Alfredo García-Falces Larrañeta**, Belaunaldiak argazkiarekin.

2. Saria:

**Julen Renedo Beunza**: Negurako Prest argazkiarekin.

3. Saria:

**Alfredo García-Falces Larrañeta**, Epaitzean argazkiarekin.

## Apustua Etsainen, egurra xehatzen

Aurtengo jaiak ospatzeko aukerarik izan ez zenez, aizkora apustu bat antolatu zuten herriko gazte batzuek. Eskarmentua duten Juan Martin eta Maximo Santesteban Josu Mugiro eta Julen Urdin gazteen aurka lehiatu ziren. Epaileak Iñaki Iraizotz eta Txus Aginaga izan ziren.

Bikote bakoitzak hamar tronkoxta lehertu behar zituen. Hasieratik, Maximo eta Juan Martin Santesteban aurretik jarri ziren eta garaileak izan ziren.

Dena den, Josu izan zen apustuaren irabazle nagusia, lehertutako egurra berea baitzen eta berak erabiliko du neguan etxea berotzeko. Bera bai azkarra!

- **Hiztegia**
- **Eskarmentua:** Experiencia
- **Tronkoxta:** Trozo de tronco
- **Lehertutako egurra:** Madera rajada

Patricia  
Mariñelarenaren  
kronika



▲ Ezk-esk.- Txus Aginaga, Maximo Santesteban, Juan Martin Santesteban, Josu Mugiro, Julen Urdin eta Iñaki Iraizotz



## Orgi Basoko gerentea den Beatriz Otxotorenak udako emanaldi kulturalen balorazio positiboa egin digu

*Badirudi gurean ere, uda osoan Covid-a besterik ez dugula izan, baina ekitaldi kultural guztiak ez dira bertan behera geratu gaixotasuna dela eta. Orgi basoan, lan itzela egin dute guztioi aisialdi kulturala eskaintzeko eta emaitzak onak izan dira.*

Ipuin kontalarien balorazioa oso ona izan da. Edukiera bete egin da erdarazko eta ingelesezko saioetan. Euskaraz, aldiz, ez da etorri hainbeste jende. Aurten, erreserba alde aurretik hartu behar zenez, saio bakoitzean jendea nondik eta zenbat etorri diren jakin dute Orgiko kudeatzaileek. Beatriz: "Gehienak, Iruñerriatik etorri dira. Esan beharra dago, Ultzama bailarakoek ia parterik ez dutela hartu. Basaburutik eta Anuetik ere etorri dira gutxi batzuk."

Kezkagarria da, euskarazko saioetan hain jende gutxik parte hartu izana. Batzuetan, bertan behera utzi behar izan dute antolatzaileek, eguneko saioa iritsi eta, inor ez izatean. Pena da, hainbeste lana eta artistaren denbora aprobetxatu ez izana.

Beatriz: "Orgi basoa ipuin kontaketa tokirik zoragarriena iruditzen zaigu, naturarekin bat, basoaren ezkutuko sekretuak eta bertan bizi diren basoko pertsonaiekin bat egiten baitu."

Pozik daude jasotako erantzunagatik eta datorren urteko denboraldia prestatzen hasi dira, urte batetik besterako lana izaten baita.

6 kontzertu prestatu zituzten (Enrique Galdeano eta Javier Escribano 2 kontzertu, Priscilla, Carlo's Duo, Zuberoa Aznarez, Alberto Rodriguez Purroy, Anje Duhalde eta Luar Na Lubre).

Denak erabat arrakastatsu izan dira, artisten iritzian. Gure iritzia nahi baduzue, mundialak izan dira! Bat izan ezik, Anje Duhalderen kontzertua. Ez ziren behar hainbat sarrera saldu eta Anjek erabaki zuen bertan bera uztea.

Artista asko dago eta musika mota asko ere, baina denak ez dute basoan jotzeko izaera. Naturarekiko errespetua, animaliei ahalik eta oztopo gutxien egiteko gaitasuna, ahalik eta jende gutxien izateko nahia.... eta beste gauza gehiago ere kontuan hartu dituzte hau dena antolatzeko.

Beatrizen esanetan: "Sortutako giroa.... errespetua, Covid neurri guztiak erabat bete dituzte parte-hartzaileek, zikinkerien aldetik deus ez dugu jaso behar izan.... etorritako jendeari 10 bat emanen genieke arlo guztietan."

Datorren urteari begira, lanean hasiko dira datorren urriaren erdialdean. Orgi kultural hau erreferentzi bat izatea nahi dute Nafarroako kultur arloan.

Egun pasa ere jendea hurbildu da Orgira, uda ongi joan da Basoan. Hiru hilabetez itxita egon eta gero, sar zitekeen jende kopurua oso murriztuta zegoenez, etorri denak bisita lasai egiteko aukera izan du. Dena den txandak antolatu dituzte bisitari kopuru gehiago sartzeko eta ongi joan da horrela, ongi antolatuta. Gure zonaldeko oso jende gutxi hurbildu da Basora, gehienbat Iruñerriatik etorri zaizkigu bisitariak, bai eta Europarrak ere.

Hemendik aurrera badituzte beste proiektu eta erronkak. Urrian, ipuin kontalariekin jarraituko dute, baina, udan ez bezala denak euskaraz izango dira. Ostiral arratsaldetan, larunbat goizetan eta arratsaldetan eta igande goizetan izanen dira, guztira 15 saio. Posible bada Orgi basoan, baina eguraldiak laguntzen ez badu, Barraskilo proiektuan edo Lizasoko pilotalekuan izango dira. Ahozko kontu kontalariak oso garrantzitsuak izan dira gure kulturaren, gure baserrietan eta ohitura hori ez dutela galdu nahi esan digute Orgi Basoko kudeatzaileek.



Orgi basoa ▲





## Utzamako Parke Mikologikoko zerbitzu asko bertan behera gelditu dira aurtengo kurtsoan

Onddo eta zizak biltzeko urteko baimenak ziren Ultzamako Parke Mikologikoaren diru sarrera nagusiak, eta aurten bono horiek salduko ez dituztenez nabarmen egin dute behera diru sarrerek. Ondorioz, aurreko urteetan eskaintzen zituen hainbat zerbitzu bertan behera geldituko dira aurtengo ikasturtean, hala nola aholkularitza mikologikoa eta bulegoa. "Bulegoa itxita egonen da, telefonoz soilik ostiraletan erantzunen dugu 10:00etatik 12:00etara", azaldu du Edurne Gerendiain parkeko kideak. Horrez gain, informazioa eskuratu nahi duenarentzat e-mail bidez ere arreta eskainiko dute: [info@parquemicologico.com](mailto:info@parquemicologico.com) da helbide elektronikoa.

Bestetik, muestreoak egiten jarraituko dute, baina aurten aurrekoetan baino askoz estimatiboagoa izanen da eta partzela gutxiago aztertuko dituzte. Baimenei dagokionez, eguneko bonoak soilik eskainiko dituzte internet bidez. Gerendiainek azpimarratu du baimen

horiek inprimatuta autoan utzi beharra dituztela mendira joaten direnek, TAO zerbitzuarekin egiten den antzera.

Eskualdeko bizilagunen artean urteko baimena zutenak abendu arte izanen dute hori indarrean, eta orain atera behar dituztenek udaletxera jo beharko dute, aurrez hitzordua eskatuta.

Bisita gidatuak egiten jarraituko dutela adierazi du Gerendiainek, nahiz eta iaz baino gutxiago egingen dituzten. Badirudi alor horretan urte ona izanen dela, jende asko baitago mendira irteteko gogoz eta bisita gidatuak eskatzen. Segurtasun neurriak betez antolatuko dituzte bisitak, eta gehienez ere hamabost pertsonako taldeetan.



CAMPING - KANPINA

**IZARPE**

ULTZAMAÑO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

### ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko erreka patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero  
sak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua  
Asteburuko Menu berezia  
Pizzak, Hanburgesak  
Plater konbinatuak  
Paellak....  
eta askoz gehiago



## Gure zonaldeko eskoletan ikasturtea aurrera doa

*Erraza izan ez bada ere, segurtasun neurriak, zalantzak eta izuak direla eta, ikasturtea aurrera doa bai Oihanzabal bai Larraintzarko eskoletan. Eskoletako langileak, gurasoak zein ikasleak bere partea jartzen ari dira klaseak aurrez aurre mantentzeko. Beti dago itxieraren mamua bueltaka baina tinko eusten diete eskolek erronkei.*

Ikasturte hasierak bereziak badira, aurtengoa ere eta berezitasun gehiagorekin etorri da gure zonaldeko ikastetxeetara. Osasun neurri berriak ezarri behar izan dituzte ikasle eta langileak Covid birusarekin kutsa ez daitezen. Dena den zuzendaritza taldeek lan handia egin dute Nafarroako Gobernutik ezarri dizkieten arau guztiak txintxo betetzeko, zentro bakoitzaren ezaugarritasunak kontuan hartuz, betiere.

Oroitu behar dugu, ikasturte amaiera ere ez zela ohi bezalakoa izan. Bat-batean eskola itxi eta etxetik bukatu behar izan zuten kurtsoa ikasleek, errutina erabat aldatuta. Harrez gero sei hilabete igaro dira, tartean udako oporrak, eta orain arau berriak bete behar dituzte eskola barruan ikasketak jarraitzeko.

Hau guztia ikusita, guraso askok kezka azaldu dute segurtasun neurriak direla eta. Haur askok ez dute maskararik erabili, 12 urte baino gutxiago edukita, baina orain Lehen Hezkuntzatik aurrera derrigorrez erabili beharko dute, adibidez.

Aldaketa asko dago ikasturte berri honetan, eta hori kudeatu behar da.

Oihanzabal eskolatik, Kepa Mateorena zuzendaria denak esan digu haurren ongizate emozionala dela lehentasuna momentu hauetan gehienbat. Gauza berri asko ikasi behar dituzte, ohitura berriak barneratu eta haur batzuentzat ez dela erraza izanen. Garrantzitsua ikusten dute ikasleak beldurrik gabe egoten lortzea.

Protokoloa zehatza da gauza askotan, osasunaren ikuspuntutik egingo, nahiz eta Hezkuntza Departamentuak helarazi. Baina neurriak azkar aldatzen dira, egoera ere aldakorra den heinean. Dena den Oihanzabal eskola, espazio aldetik, zabala da eta horrek errazago egin du segurtasun neurrien kudeaketa.

Ez da berdina gertatzen Larraintzarko eskolan. Nahiz eta han ere protokoloa prestatu eta egokitu, oso zentro berezia da Nafarroan. Bertan Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeek ikasten dute. Gainera Bigarren Hezkuntzako ikasleek bertan bazkaltzen dute. Hori dela eta, hemen leku arazo gehiago dute, Patxi Moreno bertako zuzendariak esan digunez. Dena den hemen ere protokoloa betetzeko lan itzela egin dute eta gurasoei, bileren bitartez, eman dizkiete azalpen guztiak.

Gauzak horrela, aurrera doa gure zonaldean ikasturtea eskoletan. Dena ongi joanez gero ez da behar izanen aurreikusitako beste planik ezartzea, baina badaezpada ere, lanean dihardute aukera horretan ere.



Oihanzabal eskolako ikasgela bat, aurtentzen



## Julen Kañamares, banakako pentatloiko finalean



Finalerako seigarren txartela lortu zuen Julen Kañamares aroztegiarrak, eta sailkapenean seigarrena izan zen irailaren 26ko banakako euskal pentatloian, Azpeitian. Garailea Xabier Zaldua izan zen, hirugarrenez, bere markarik hoberenarekin; atzetik, gertutik, Julen Gabirondo izan zuen; eta Xabier Orbegozo 'Arria' V-ak eskuratu zuen hirugarren postua.


Sorpresaz lortu zuen finalerako seigarren txartela Julen Kañamares aroztegiarrak, berak onartu zigunez: "parte hartzea besterik ez nuen nahi, hurrengorako hobeto prestatzeko". Eta, seigarrena izan da finalean, lanak 43 minututan eta 23 segundotan bukatu zituela, baina pozik: "pentatloia oso gogorra da, eta eguraldi horrekin gogorragoa. Baina, bukatu genituen lanak eta pozik, bai".

Izan ere, sekulako ekaitza bota zuen, eta haizea ere gogor jo zuen irailaren 26an, gauean. Hain zuzen ere, argirik gabe gelditu ziren une batez, eta finala bertan behera gelditzeko arriskuan egon zen.

Julen Kañamares (30) aizkoran ibili da txikitatik, aita eta osaba sortutako Zurgai taldean. Pozik egotekoa da, bai, pentatloian lortutako emaitza, uztailean egin baitzuen bere lehenengoa. Binakako euskal pentatloia izan zen bere lehenengoa, Xabier Urrutiarekin batera laugarren postua eskuratu zuten.

### Sailkapena:

1. Xabier Zaldua: 36:06
2. Julen Gabirondo: 36:41
3. Xabier Orbegozo 'Arria V': 37:55
4. Kepa Peñagarikano: 38:42
5. Iñaki Errazkin: 40:05
6. Julen Kañamares: 43:23



# Esan Erraneko Irrati Tourra

## Egun Ero irratsaioaren denboraldi berria iragartzeko irrati bira egin du Esan Erran-ek

Asmoa eskualdea bizikletaz zeharkatzea zen, baina euriarengatik txirrindak etxean utzi, eta autoz egin zuten ibilbidea. Irailaren 25ean eta 26an izan zen irrati bira, tartean zuzeneko irratsaioak bost herritatik, elkarrizketa ugari, eta ikuskizunak eskaini zuen Ultzama aldeko irratiak. Irailaren 28an hasi dute berriro Egun Ero irratsaioa, eta hura iragartzea zen biraren helburuetako bat.

### Esan Erraneko Irrati Tourra

Bost izan ziren ibilbidean egindako geldialdiak: Olaguetik abiatu eta Erripan, Aroztegin, Jauntsaratsen eta Latasan egin zituzten zuzeneko irratsaioak ostirala eta larunbata bitartean. Hainbat elkarrizketatu gonbidatu zituzten herri bakoitzean: Aritzuko bizilaguna den Isabel Oiartzun Zubiritik abiatu eta Aritzutik pasatzen den GR ibilbide berria azaldu zuen; Erripan Yolanda Mutiloak Anotzibarren aurreikusita dagoen parke eolikoaz aritu zen, aurka agertu baita aho batez kontzejua; bukatzeko, Julen Kañamares euskal pentatloiko finalista izan zen Izarpe kanporean egindako zuzenekoan.

Larunbatean hiru elkarrizketatu izan zituzten: Ana Galar lizasoarra

Laraintzarko Bentan ikusgai jarri duen erakusketaz aritu zen; Virginia Fernandez, Igoan duen Win Win artzaintxakurren enpresaz; eta Mikel Legarra, Goldaratsen Aranzadik ateratako makien inguruaz.

Gainera, bi ikuskizun antolatu zituzten Esan Erraneko kideek, bira girotzeko. Ostiralean Xaxardi eta Ni neu galtzeta beren liburuen ipuin kontalaria eskaini zuten Joana Zigandak eta Iker Uribek, Izarpe Kanporean. Larunbatean, bira amaitzeko, Leizeak taldearen kontzertua izan zen Latasako Biltegian.

### Egun Eroko denboraldi berria

Irailaren 28an hasi zen Egun Ero magazinaren denboraldi berria. Aurten, pasa den ikasturteko

formatu bera jarraituko dute Esan Erraneko irratsaioan: kolaborazio eta elkarrizketa bana izanen dute astelehenetik ostegunera, eta, ostiraletan Egun Ero Kantuz saio berezia berreskuratuko dute. Bertan gonbidatu baten ibilbideari erreposoa eginen diote bere bizitzako 10 kanten bidez.

Hainbat kolaborazio mantenduko dituzte: feminismoaz, literaturaz, musikaz, pilotaz, nobela beltzaz eta euskararen inguruan arituko dira Erruki Ezkurra Mariezkurrena, Patxi Irurtzun, Iñaki Larraioitz, Zepelo, Irantzu Perez eta Felix Alzelai. Halaber, Gizarte Zerbitzuen tarte, Lurraren eko-aholkuak, sukaldaritza atala, eta bailaren kolaborazioa ere mantenduko dira.

Gainera, atal berriak ekarriko dizkigu denboraldi berriak: historiaren inguruko atal berri bat, zinemaren ingurukoa, eta bidaiei buruz hitz egiteko tarte bat, esate baterako. Bestetik, EHNE sindikatuko Begoña Okiñena etxalekuarrak nekazaritzari eta abeltzaintzari buruzko gaiak jorratuko ditu. Horiek dira edukien gaineko berrikuntzak, baina, Esan Erraneko aurtengo erronka entzuleen parte-hartzea handitzea da. Horretarako, zozketak egiten dituzte 15 egunean behin, sariak banatzeko. Gogoratu saio guztiak amezti.eus-en aurkituko dituzuela. Beraz, adi eta piztu Esan Erran! (107.9an).



Sekulako euri zaparrada bota zuen Erripan ▲



## Denbora pasa bereziak ditu Goio Urteagak bere jakin-minak asetzeko

Ez da Goio Urteaga geldirik egoten dakien norbait. Lantzen bizi den Iraizotzar honek beti du zerbait egiteko eta bestela asmatu egiten du. Kamioiarekin hasi, gero zurezko etxeak saldu zituen, urte askotan hondakinen bilketan lan egin zuen eta orain bere denbora arkuak egiten, larruak apaintzen edo eta traktore, quad, auto edo nekazaritzarako behar diren tresna guztiak konpontzen pasatzen du.

### Nola sortu zitzaizun ehiza arkuz egiteko afizioa?

Ehiza arkuarekin egiten dut aspaldi, gero eta gutxiago gustatzen zait eskopetarekin ibiltzea. Arkuarekin hasten zarenean grinatu egiten zara. Gainera, arkuarekin ehizatutako animalien haragia ez da berdina. Normalean arkuz hildako animaliak haragian ez du odolik gordetzen, eta haragiak kolore argiagoa dauka, zaporea ere finagoa, suabea.

Arkugintzan hasi nintzen denborapasa, ez aspertzeko. Australiara bidaltzen ditut orain batzuk, han familiarentzat, ehizan arkuz aritzen bait dira.

### Berezia al da arkuaren mundua?

Gezi eta punta desberdinak daude, hiru puntakoak, hipodermikoak, G5... segun zein animalia ehizatzen duzun

eta haien zer distantziara zauden ere. Hala ez da berdina animalia zutaz 40 ala 30 metrotara egotea ere, urrunago ala gertuago. Arkuari ere, egiterako orduan, potentzia desberdina ematen diot ez baitira berdina ehiza egitekoak ala dianari botatzekoak.

Oso gustura egiten ditut arkuak, egin ahala ikasten baitut. Denak du bitxikeria, arkuak, geziak, puntak, ariak... Denak du zerbait, mundu bat da. Egur mota desberdinak erabiltzen ditut. Beira-zuntza, adibidez, Hungariatik ekartzen dut, itsaskinak ere berezia behar du eta, erabili ere, hezetasuna ez dagoen egunetan soilik erabil daiteke. Arkua politagoa egiteko, behi adarrak jartzen dizkiot, horrek ekartzen duen lanarekin, hauek zuzentzea, gustuko forman moztu...Arkuak egiteko prozesu guztia nik egiten dut, eskuz, arazoei nire burutik ateratako soluzioak jarriz. Prozesua

mantsoa da, pauso bakoitzak bere denbora behar du ongi finkatzeko, baina orokorrean arku bat prest egon dadin hamar bat egun behar ditu batz beste.

### Larrua apaintzen ere ikasi duzu

Bai, hori ere egiten dut. Anaiak bazekien, gauza bitxia iruditu zitzaidan eta neure buruari esan nion hori ere ikasi behar nuela, eta halaxe izan da. Eskura ditut lehengaiak eta anaiak erakutsita ikasi nuen. Ez da zaila, baina pazientzia eta denbora eskatzen du. Ardi eta axurien larruak apaindu ditut, bai eta nik ehizatutako orein batzuenak ere. Behin apainduz gero, larruarekin labanentzat zorroak, geziak karkasak eta egiten ditut. Dena den afizio hutsaz aritzen naiz horretan, ikasteagatik.

### Motorra duen edozein ibilgailu ere konpontzen omen duzu, nolatan?

Bai, traktoreak, quad, motozerrak... denak konpontzen ditut. Zerbait hondatzen bada, kable bat handik, piezaren bat hemendik, konponbidea nola eman asmatzea gustatzen zait. Azkenean traste guztiak nola dabilzan ikasten dut. Herriko jendeak ere ekartzen dizkit hondatutako gauzak, motozerraren bat, ereiltzeko makina, traktoreak ez duela arrankatzen...eta konpontzean eskerrak eman eta kitto. Lagun artean egiten dut, ez dut ogibidetzat hartzen, ez eta nahi ere.



▲ Goio Urteaga arkuz bere etxe atarian



### ***Itxialdiaren ondorioz, herrietako etxeen salmentak gora egingo zuela aurreikusi zen, baina ez da horrela izan***

Historian, herritik hirirako exodoa izan da ohikoena; eta, gaur, herrien hustearen kezka nabarmena da, gurean ere. Herritarrak aukera gehiagoren bila doaz kanpora, eta haiekin batera zerbitzuak desagertzen dira; baita elikatzen gaituzten abeltzainak ere. Beharbada, horregatik, batek baino gehiagok itxaropen izpi bat ikusi zuen itxialdian. Hirian bizi eta etxea herrian duten askok bertara joan baitziren alarma egoera iraun zuen bitartean. Horrela, landa eremuko etxeen salmenta gora egingo zuela aurreikusi zuten batzuek, baina ez da horrela izan, agentzien arabera.

Itxialdia ez da berdin bizi izan hirian edo herrian. Hori argi gelditu da. Hirian gelditu ziren horiek bazekiten hori, are gehiago ezta terraza edo balkoi bat ere ez zutenek. Eta, askok, jaioterrira edo asteburuetakoa etxera joan ziren itxialdia iraun bitartean. Horregatik, eta beste alarma egoera batzuk etorriko direla uste delako, gurea bezalako landa eremuan erosiko ziren etxeen kopuruak gora egingo zuela uste zuten adituek. Ez omen da horrela izan, ordea.

#### **Usteak erdia ustel**

Higiezin Agentzien Federazioak (FAI) onartu duenez interesa gehiago dago lorategia edo terraza duten etxeak erosteko. Baina gauza bat da interneten bilatzen

dena eta beste bat benetan gauzatuko diren asmoak. Izan ere, FAletik diotenez, horrelako etxeak garestiagoak izaten dira, eta eskaintza gainera txikiagoa izaten da, jabeek asteburuetan eta udan joateko nahi baitituzte, eta ez baitute saltzeko asmorik.

Gure eskualdean etxeak kudeatzen dituzten agentziek ere horrela baieztatu digute. Urdaxek, adibidez, hainbat etxe salgai ditu Anuen, baina gehienak eraiki gabe daude oraindik: "Kontsultek gora egin dute, bai, baina jendeak berehala sartu nahi du, itxialdi berri baten beldur direlako. Gureak oraindik eraikitzeko daude, horregatik interes hori ez da benetako erosketa batean gauzatu". Inmobiliaria Navarra

higiezin agentziak etxe bat salgai du lortzen, eta interesa gora egin duela ere onartzen du: "Imozko etxe hori bezalako etxeak erosteko nahia igo da pixka bat, bai, baina ez da gehiegi nabarmentzeko zer bait".

Bestalde, Jokin Condek duela urte bete jarri zuen salgai Auzan duen etxea. Gauza bera esan digu, jaso dituen deiak nabarmen igo dira, baina ez du eroslerik lortu. Jendeak berehala sartu nahi du eta horretarako etxea bikain egotea bilatzen du: "Itxialdia baino lehen, bost dei inguru jaso nituen, eta bisitarik ez. Ondoren, hogei dei jaso ditut, gutxi gorabehera, eta hamar pertsona etorri dira etxea ikustera. Gehienak, ekain eta abuztu bitartean".



FOTOCASA WEBGUNEAREN DATUEN ARABERA: URTARRILETIK LANDA EREMUKO ETXEEN BILAKETA %46 IGO DA; PISUENA, BERRIZ %14 JAITSI DA

Olaguen proiektatutako etxebizitzetako bat ▲



“ Gaur egun oso zaila da, terrenoa erostea oso garestia delako eta soldatak ez dira lehen bezalakoak, oso baxuak dira ”

### Gelditzeko aukera gutxi

Aipatu bezala, gurea bezalako eskualdeek populazioa galdu dute azken hamarkadetan. Gazte askok hirira joan behar izan dute, eskaintza gutxi, oso garestia eta traba administratibo asko direlako, besteak beste.

Baina badira herrira itzuli direnak. Arraizko Maitika Ibarra eta Axier Jauntsarats, kasu. Axier Jauntsaratsen familiaren etxe bat zaharberritzen hasi berri dira, eta ez dira Arraitzen geldituko diren

bakarrak, Axierren anaia ere, Eneko, besteak beste. Maitika Ibarra: “zorte handia izan dugu nire familiak eta Axierrenak etxeak dituztelako. Gaur egun oso zaila da, terrenoa erostea oso garestia delako eta soldatak ez dira lehen bezalakoak, oso baxuak dira. Etxe bat zaharberritzeak pisu bat erostearen antzeko kostua du, baina terrenoa eta dena erosi behar baduzu ez da posible, bizitza osoa eman beharko zenuke hipoteka ordaintzen”.

Halaber, dirua ez da oztopo bakarra, traba asko dira Ibarren arabera: “ez dakit non dagoen arazoa, konponbidea Nafarroako Gobernuari eskatu behar zaion edo Ultzamako Hirigintza Plana aldatu behar den, baina zerbaitengatik oztopo asko daude. Guk bost urte eman ditugu baimenak eskatzeko eta tramite guztiak betetzeko”.

Dagokionari, baina erraztasunak eskatzen ditu Maitika Ibarrek, geratu nahi duten askok joan behar izan baitute: “Ultzamako jendea ezagutzen dut Iruñera joan

behar izan duena ez zuelako ezer eraikitzeke edo zaharberritzeke. Niri pena handia ematen dit. Bestalde, jende askok beste herri batzuetara joan behar izan du, Auzan edo Orkinen dauden pisuetara, adibidez, bere herrian ez baitzegoen eskaintzarik”.



▲ Olaguen eraikitzen ari diren etxebizitza



▲ Inmobiliaria Navarrak Imotzen saltzen duen etxea



▲ Maitika Ibarra, zaharberritzen ari den etxe atarian









# PETRA, Amatasun Feministak

## Nork zainduko ote ditu umeak?

Egungo gizarte kapitalistaren lan merkatuak ez du pertsonak zaintzeko aukerarik ematen. Horixe salatu dute aspaldi talde feministek, eta, Covid-19ak eragindako krisiak arazoa azalean utzi du. Horregatik, Basaburuan sortutako PETRA elkarteak umeen zaintzarako ordaindutako baimena eskatu dio Espainiako Gobernuari.

PETRA, Amatasun Feministak elkarteak 2018ko ekainean jaio zen, Aizarotzen. Ama talde batek sortu zuen, 2019an onartutako lege dekretu baten testuinguruan. Amatasun baimena luzatu ez, eta, aitatasuna parean jarri baitu legeak. "Amatasun baimen duin baten alde borrokatu ondoren, berriz ere baztertu zituzten gure eskaerak. Aitek jasotzen dituzten baimen berdinak eta transferiezinak kontra gaude", adierazi digute elkartetik. "Sistema patriarkala eta kapitalista honek gure umeak baztertzerik edo modu prekarioan haztera eramaten gaitu, hori aldatu nahi dugu".

Elkartea estatu mailan zabaldu da, baina Nafarroan sortua da, Alba

Schiaffino Aizarozko bizilagunak azaldu digun bezala: "Ama eta feminista talde batek osatu dugu PETRA. Patricia Merino antropologoak eta elkarteko lehendakari ohiak Iruñean eman zuen hitzaldi baten ondorioz jarri ginen harremanetan. Elkartearen sorrera hemen Basaburuan egin genuen, Kultur Etxea eta udalaren laguntza bagenuelako. Horrela sortu zen 16 kide dituen Nafarroako delegazioa".

### ORDAINDUTAKO BAIMEN UNIBERTSALA

Hasieratik jaso duten aldarrikapena da umeen zaintzarako ordaindutako baimen unibertsala. Gizarteak duen zaintza krisia agerian gelditu dela uste dute: "Ikastetxeak itxi zituztenean zaintza arazoa inoiz baino gehiago azaleratu zen, baina kontziliazioa ez da inoiz existitu. Guk lan merkatuaren transformazioa eskatzen dugu, bizitzara egokitu

“ Ikastetxeak itxi zituztenean zaintza arazoa inoiz baino gehiago azaleratu zen, baina kontziliazioa ez da inoiz existitu. ”



Esk-ezk; Ainarra Tirapu, Virginia Izquierdo, Laura Esteban, Elena Antunez, Elisa Gonzalez eta Alba Schiaffino ▲



dadin: baliabideak, baimenak, lanorduen murriztea ...”.

Baimen hori pandemiarik ez balego ere ezarri beharrekoa ikusten dute, baina pandemiaren eraginez, orain, premiazkoa da. “Eskola ixten bada, klase erdia etxetik aritzen bada, edo gure umeak berrogeialdian jartzen badituzte, amek eszedentziak, lan orduen murrizketak edo telelanaren gehiegizko karga pairatu beharko dugu, berriz ere”.

Horregatik, zaintzarako ordaindutako baimen unibertsala eskatu diote Espainiako Gobernuari eta sinadurak jasotzen ari dira honako helbidean: <https://plataformapetra.com/adhesion-permiso-covid-vuelta-al-cole/> Erantzun zabala jaso dute, 24 ordutan 1000 sinadura bildu baitzituzten.

Baimena, gainera, unibertsala izatea eskatu dute. Hau da, soldatapeko lan bat ez dutenendako ere zuzendu dezaten.

#### • AMATASUNA, LUZEAGOA; AITEN BAIMENA, BESTERENGARRIA

Gaur egungo 16 asteko amatasun baimena 1989tik ezarritakoa da. Horregatik, hainbeste urte ondoren, lege berriak aiten baimena bakarrik luzatu izanak haserretu ditu: “Hezkidetzan aritzen diren aitak arduratsuak dira baimenik gabe ere. Batzuek eszedentziak hartu eta lan orduak murriztu ere egiten dituzte, amek bezala. Arduratsuak ez direnak ez dira zaintzan hasiko egun batetik bestera. Bestelakoetan aritzeko erabili dezakete baimena”. PETRAk zabalak diren baimenak eskatzen ditu, transferitu daitezkeenak, familia bakoitzak nola banatu erabaki ahal izateko.

### **PEDRO SANCHEZEK BETE EZ DITUEN NEURRIAK:**

#### **Martxoan:**

Telelanean aritu ezin diren gurasoendako diru laguntzak iragarri zituen.

#### **Abuztuan:**

Isolatutako umeak zaintzeko baimena aztertzen ari zela esan zuen.

### **Nafarroako Gobernuak 500 eta 800 euro bitarteko laguntzak eskainiko ditu guraso bakarreko familientzako**

PETRA: “Covid-19an positibo diren umeen gurasoendako baimenak bakarrik onartu dituzte. Baina berrogeialdian egon eta gaixotasunean positiborik jasotzen ez dutenen umeen gurasoek ere haiek zaindu beharko dituzte”.

### **BAIMENEN LUZAPENERAKO PETRAREN BI PROPOSAMENAK:**

#### **1. Onartzeko errazagoa: 32 aste**

6: derrigorrez, amarendako.

6: derrigorrez, bigarren pertsonarendako.

20: amarendako, edoskitzaroa. Baina, transferitzeko aukera.

#### **2. Zuzenena: 52 aste**

6: derrigorrez, amarendako.

6: derrigorrez, bigarren pertsonarendako.

40: Horietatik 20, amarendako, edoskitzeko. Transferigarriak.



# Gerra gure alderdian (II)

## Errepublikaren kontra, frentean hil zit

### Lantz

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	ZEIN ETXETAKOA ZEN	HERIOTZ EGUNA	ZENBAT URTEKIN	NON ARI ZEN ZERBITZEN (1)
FRANCISCO	ARÍZTEGUI	RECALDE	Xinbornea	13/4/37	24	Armada
JOSÉ	ARÍZTEGUI	VILLANUEVA	Etkezarrea	25/3/38	24	Erreketea
HIGINIO	GOÑI	ALMÁNDOZ	Domartiñenea	12/6/37	29	Erreketea
JOSÉ MARÍA	GOÑI	RECALDE	Etxeberria	21/9/37	23	Erreketea
MARTÍN	GOÑI	RECALDE	Etxeberria	20/7/38	18	Erreketea
ANTONIO	OYAREGUI	OLAIZ	Barbenea	11/6/37	29	Erreketea
FERNANDO	OYAREGUI	OLAIZ	Barbenea	11/6/37	24	Erreketea

#### Boluntarioekin bueltaka

Aurrekoan, Anueko ibarrak aritu ginelarik, boluntarioez zerbait ekarri genuen hizpidera. Oraingoan ere zerbait erranen dugu. Eta gerra hasi eta bigarren egunean edo, Iraizozko Martixeneko nagusiaren andrea eta maistra zenak herriko mutilei erran ziena aipatuko dugu: "¿Pero qué haceis sin ir a la guerra? En mi pueblo todos los mozos ya se han ido"

Honek erakusten du nola Ultzaman nagi zeuden gerrara

“El Pensamiento Navarro” egunkaria



boluntario joateko. Eta aitzinekoan erraten genuen bera: gerrara joateko berotasun handirik ez zen, baina berehala batek hau eta bertzeak hura, jendea berotu eta gerrara joateko animatu zen. Gehiago, jakinik, gerra, aunitz jota ere, astebete edo luzeenez ere bi asteko kontua izanen zela. Hori baitzen erraten zena eta jende gehienak sinetsi zuena.

#### Lanzko eta Odietako boluntarioak, zinezkoak!

Hala ere gure alderdian ez zen denean berdin. Lantzen eta Odietan behintzat boluntarioak baziren. Errepublika garaian (1931-1936) Nafarroako herri aunitzetan karlistek beren boluntario taldeak antolatu zituzten eta gerra hasi orduko, uztaillaren 19an, igandez, Iruñera autobusez joan eta atsaldean Madril eta Gipuzkoa aldera atera ziren. Eta Lantz eta Odietako gazteak ere hala egin zuten. Lantzik 11 lagun behintzat joan zen. Eta Odietatik, berriz, 20 rekete eta falanjista bat. Horiek denak guerra hasi aitzinetik prestatu ziren. Mola Jeneralak gerra bandoa atera zuenean, egun berean, Gaztelu Enparantzan desfilatu goizean eta atsaldean, etxera etortzeko betarik hartu gabe, alde egin zuten frentera.

#### Ametza eta ausardia oinazea bihurtu zen.

Bihar Madrilen! Bihar Madrilen!

Ai, ai! Aurpegi argiak, kantuak, oihiak eta animoak biharamunetik bertatik itzaltzen hasi ziren. Eta frentean zirenen artean baino gehiago guraso, senide eta adiskideen artean.



Martin Goñi Recalde, gazte-gaztettoa zen



Hiriak edo herri handiak hartzen zituztenean ezkilak jotzen zituzten, baina hil ezkilak ere ez ziren faltako.

Laster hasi ziren soldadu hilen gorpuak etxeraten, ia biharamunean bertan, batez ere Gipuzkoa aldetik, Oihartzun, Irun eta Andoaindik... Gazte aunitz hil zen. Eta gorpuak herrira ekartzen zituzten ahal guzietan. Lantzen bederen, gerran hil ziren soldadu guziak (7 lagun) herrian ehortzi zituzten.

Horrela herriko semeak galtzeak, joan aitzineko esperantza apaldu zuen. Eta zenbaitengan gorrotoa sortu ere bai.

### Lanzko bertze xehetasun batzuk

Lantzen boluntario aunitz joan zen (Hala ere bazen bertzerik, beherago, Amaiaren kontuan aipatzen ditugu gerra maite ez zuten bi, eta bertzaldera pasatu zen bat)



Francisco Ariztegi Rekalde, erreketea ez zen bakarra. ▲

Boluntarioetan, aipatu beharrekoak, Zurginien etxeakoak, lau anaia joan baitziren gerrara. Denak Montejurra Tertiokoak izan ziren, erreketek (karlistak)

Eta zer erran Barbeneko Antonio eta Fernando Oiaregi Olaizez, biak egun berean hil zirenak, Bizkaian, Bizkargi famatua hartu eta Ukulu 365 kota hartzerakoan hilak, 1937ko ekainaren 11an?

Bertze bi anaia ere hil ziren, Jose Mari eta Martin Goñi Rekalde, Etxeberrikoak.

Eta zer erran Higinio Goñi Almandozez, Domartiñenekoaz? Hau 1937ko ekainaren 12an hil zen. Eta honen anaia Marcos Goñi Almandoz, apezka, Bartzelonan fusilatu zuten anarkistek 1936ko abenduaren 3an. Manuel Irurita, Bartzelonako gotzaiaren lehengusuak ziren Domartiñenekoak. Beraz, etxe honetako bi semeak galdu zuten bizia.

Eta bi mutilen heriotza aipatzea bertzerik falta ez eta horra biak: Francisco Ariztegi Rekalde eta Jose Ariztegi Villanueva, Xinborneko eta Etxezarreko semeak, hurrenez hurren. Lehena Bizkaian, Otxandianon hil zen eta bigarrena Teruelgo frentean.

Eta Lantzen bertan, aipatu ere aipatu digute gorriekin hil zen Simon Jorajuria, Iruñean bizi eta ihesi egin zuena Errepublikaren ejertzitoan borrokan aritzeko eta bizia galdu zuena. Bertze noizbait gizon honen berri emanen dugu.

Nolako odol isuria! Nolako kaltea ekarri zigun gerra honek! Nafarroak eta Euskal Herriak ez zuten gauza aunitz irabazi! Ez horixe!!! Lutoa eta lutoa! Eta bertze kalte aunitz.

 Txurdan

### Buruan iltzatuak

2013ko ekainaren 21ean zen eta Lantza joan nintzen, Danboliñenera eta bertan topatu nuen Julian Beuntza Ilarregiren iloba, Barbeneko Begoña Oiaregi Beuntza.

Oraindik emakume gaztea eta gerraz zer ote zekien jakin nahi nik eta horrela galdetu nion:

-Zuk badakizkizu gerran hil ziren Lanzko mutil guzien izenak eta zein etxetakoak ziren?

-Nola ez du jakinen ba, bi osaba baditut hilak eta. Bi osaba egun berean, Bilboko gerrikoan hilak, El Gallo zeritzan tokian hain zuzen. Toki horretan eraso zuten batzuek, horien artean gure osabak, beren lagunak bertze toki batetik pasatzeko. Etsaia nahasteko egin zuten hori. Eta biak hil ziren.

Ondoren, banan-banan, hil guzien izenak eta zein etxetakoak ziren erran ere bai. Horrela beharko genuke guziok, etxeko eta herriko kontuak gogoan izan lehenbizi. Kanpokoak gero.

OHARRA: Bilbo defendatzeko, inguruan, bueltan bueltan, hormigoiez egindako bunkerrak egin zituen Eusko Jaurilaritzak, Francoren aldeko tropei oztopoa jartzeko. Horri Cinturon de hierro eta Burdinazko gerrikoa esaten zitzaion.



# Karabineroak

## engainatu zituen lanztarra

Lanzko Amaia Mariñelaren kontua (6-7 urte zituen hau kontatu zidanean)

-Gure aitak izan zuen osaba bat, hila, oso zaharra zelakoz eta gaitzen bat zuelakoz.

Eta kontatuko dizuet istorioa, Bautistari gertatua:

"Gerran ari zen. Eta poliziek ez zuten uzten eskapatzea. Berak ez zuen egin nahi borroka eta egun batean poliziak jakin gabe ihesi egin zuen bere etxera eta ez zuten harrapatu.

Hala ere, egun batez poliziak konturatu ziren eta etxeko tinbrea jo zuten:

-Bautista Saralegui, ¿Qué hace Vd. aquí? ¿Por qué se escapó de la guerra? -Eta erran zioten joan beharko zuela kartzelara.

Eta Bautista erran zien:

-Quiero decirle adiós a la Chokolatera.

Eta joan ziren Txokolaterarengana. Txokolatera oso ernea zen. Honek bazekien euskaraz eta Bautistak ere bai, baina poliziek ez zekiten.

Eta Txokolaterak erran zion:

-Zoaz komunera ta eskapatu leihotik, Frantziara!

Ta poliziak:

-Que le ha dicho Vd? -Eta Txokolaterak berriz:

-¿Qué le voy a decir? Que se limpie esa barba que si no, no podrá ir a la cárcel!

Eta poliziak jo zuten atea:

-Bautista Saralegui! Bautista Saralegui!

Eta ireki zuten atea, baina...

-¡No está, no está!

Eta lasterka atera ziren atzetik, eta herriko umeak:

-Carabineros, poco dineros, Saralegui se os ha escapado"

.....

-Amaia, eta ez zuten harrapatu? Lantza itzuli zen noizbait?

-Ez. Ez zuten harrapatu. Baina egon zen urte luzez Frantzian eta Ameriketan, eta gero, gure etxera ere etorri zen.


### OHARRAK:

1.-Hemen kontatutakoa egia da. Hala ere, zerbait falta du eta, batez ere, bigarren partea, Txokolateraren pasadizo hori ez zen Lantzen izan. Gertaera hori Aezkoa aldean edo hor nonbait gertatua baita.

2.-Amaiak kontatutakoaz gain, bertze Saralegi bat, soldadutzara deitu, eta ez zen agertu: Martin zen, Bautistaren anaia. Honek ere Frantziara ihesi egin zuen.



Amaia Mariñelarena, Errekaondokoa, orain neskatxa egina



Txurdan



Lanzko herria, Aritzu aldetik



# Haragi bolak

## Haragi-bolak

Lantzik datorkigu ale honetarako errezeta goxo hau. Sonia Legazkuek bidali digu nola egin klasikoa den jaki hau. Egin eta momentuan jateko edo eta lehenagotik prest utzi eta hurrengo egunerako ere bikain egoten dira haragi-bolak. Helduek zein haurrek gustura jan ohi dituzten haragi-bolak nola prestatu ikasiko dugu oraingoan.

### OSAGIAK

**Tomatea egiteko:**  
kilo bat tomate  
Tipula bat

**Haragi-bolak egiteko:**  
500gr aretxin haragi pikatua  
300gr txerri haragi pikatua  
Arrautza bat  
Tipula erdia  
Baratzuri ale bat  
Perrexila  
Olio birgina  
Gatza

### • PAUSOAK:

- 1) Tomatea egiteko, tipula xehatua frijitu horitu arte. Tipulak kolorea hartzean, tomatea pusketan bota, azala eta guzti. Sutan ordu erdi inguru edukita, txinotik pasa eta berriz ere sutan jarri, oraingoan su eztian.
- 2) Haragia prestatzeko, baratxuria eta tipula xehe-xehe egin.
- 3) Ontzi sakon batean nahasi haragia, baratxuri eta tipula dagoeneko xehatuak, arrautza eta perrexila. Gatzatu.
- 4) Eskuz haragiarekin borobilak egin eta olio birginarekin frijitu gorritu arte.
- 5) Frijitutako haragi-bolak tomatea egina dagoen kazolara bota eta sutan eduki tomatearekin batera hamabost minutu su eztian.
- 6) Nahi izan-ez gero patata frijitu batzuekin lagundu. On egin!!





## Ignacio Larraia Orrio, Ziaurrizko Matxineko gizon handia

### Euskararen galera historikoa.

Parta-parta, herriak, bat bestearen ondoren, erdalduntzen hasi ziren Nafarroan. Hegoaldetik iparraldera, herri euskaldunak herri erdaldun izatera pasatzen ari ziren. Garai batean, nahiko egonkorra izan zen muga hori edo mantxo mugitu zen euskararen kaltetan. Hala ere, halako batean zitzu bizian hasi zen muga iparraldera egiten. Euskarak urtetik urtera herriak eta herriak hasi zen galtzen. Noiz sortu zen fenomeno hau? Azken karlista gerra galtzean, 1876. urtean. "Gure" gerra galtzeak izugarritzko eragina izan zuen, nahiz beste faktore aunitz ere izan zen egoeraren gaiztotze horretan.

Ziaurritzen XX. mendearen hasieran hasi ziren neska-mutikoak karrikan erdaraz mintzatzeko eta euskara baztertzen, etxeetan ere umeak erdaraz hazten hasi baitzen jendea.

### Euskarari eutsi nahian

Uholde ikaragarri eta hilgarri horren aitzinean ere, harrigarriki, bazen oraindik euskara aintzat hartzen zuenik. Euskara maite zuena eta euskaltzale sentitzen zena (1)

Horietako bat Ignacio Larraia Orrio izan zen, Ziaurrizko **Matxineko** nagusia.

Hala zioen Ignacio Larraia Etxaidek, aurrekoaren **ilobak**, 1986an: *Nik zortzi urte nituelarik,*

*lo egiten nuen aitaxirekin, eta hark doktrina euskaraz erakutsi zidan. Eta errezoak. Ni, lo igual, eta bera niri zirikaten.*

*Izan zen hemen misiolari bat, l barguren, gizon famatua, eta eman zidan premioa. Doktrinak lau parte ditu eta hark galdetu eta nik erantzun! Galdera guziei!*

*Gero aitaxi hilzen eta apez erdalduna, eta akabo! Eta gero eskola (2)*

Ignacio Larraia Etxaideren adiskidea zen Pedro Senosiain Olasagarrek ere hala kontatzen zuen: *gurasoek etxean, beren artean, beti euskaraz, baina joan eskolara eta maistra euskararen etsaia, eta karrikan dena erdaraz. Horrela*







desagertu da euskara herritik.

*Guk jakin genezakeen euskaraz, baina gure gurasoek ez zuten ahaleginik egin, maistruek ere ez. Eta apeza, euskalduna izanik, honek ere deusez, eta jakina...(3)*

Urtean behin edo gutxiagotan etortzen zen misiolari euskalduna, Larraia bezalako euskaltzaleren bat ere bai; baina indar gune ttiki horiekin nola eutsi euskarari?

Eskolan etsai bizkorra, ustez zerbait zekiena, eta apezarekin doktrina erdaraz, eta sermoia ere bai; ez zegoen eskapo egiterik. Euskararen heriotza horrela izan zen Ziaurritzen eta aunitz herritan.

la familia guziak euskaldunak ziren, baina, uholdea etorri eta den-dena eraman zuen, zaborra eta zikina utziz harrapatu zuen eremu guzian. Horrela gertatu zen izurrite madarikatua izan zen toki guzietan.

### Monumentu bat merezi dute.

Gerra galdu, Don Carlos bialdu, euskara atzendu, arrotza nagusitu... ederra etorkizuna! Ardo goxorik ez zebilen garai haietan! Zenbat ardo ozpindu ordaindu behar izan dugun lehen klasekoa balitz bezala! Zenbat bere usteko naguxiri, zenbat ipurzikini, zenbat ezjakin arrotzi ordaindu diogun merezi ez zuten soldata!

Dena dela, gaurkoan, ohore eta aintza, "Ibarguren famatua"ri, oraindik ere euskaraz mintzatzen zen umea bere boltsatik saritzen zuena. Eta ohore eta aintza, oraindik ispilu dugun Larraia Orrio jaunari, uholde guzieren kontra saiatu eta etsi hartu ez zuen ziaurritzarrari! **Heroe honek monumentu bat merezi du. Eta horren antzera jokatu zuten beste anonimo frankok ere bai. Monumentu bat? Zergatik ez? Euskal Herri guzian jende anonimo hauek ez dute oroigarri bat ere!**

 Txurdan

### OHARRAK :

(1).-Ziaurritzko euskararen inguruko kontu hauek **Fontes Linguae Vasconum**. *Estudia et documenta aldizkaritik hartu ditut. 2019ko bigarren zenbakitik: 2019/128. Koldo Artola euskaltzale handiak 1986an Ignacio Larraia Etxaideri egindako elkarrizketatik.*

*Eta etxearen izena, eta Ignacioren familiaren berri Odietako Udaletik Itziar Bidaurrek eskuratu dizkit. Aunitz esker.*

(2) Ignacio Larraia Orrio, 1916ko abenduaren 23an hil zen, bere etxean. Ordurako, Ignacio Larraia Etxaidek 15 urte zituen. Eta Pedro Senosiainek ere bai.

(3) Bat, apez erdaldunaz ari da, eta bestea apez euskaldunaz baina erdaraz mintzatzen zenaz. 1912an etorri zena Pedro Madotz Lizasoain zen, euskalduna, baina doktrina erdaraz ematen zuen eta elizan ere hala aritzen zen. Aurreko apeza zein zen ez dugu ikasi. Eta horrek ere doktrina erdaraz erakutsi zien. Erdalduna ote zen?



Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

“Gure oroimenean izanen zarete”

### Heriotzak:

#### ANUE Olague

Felisa Larraiotz Vidan, abuztuaren 1ean hil zen, **Larraiotzen etxeko** alaba.



▲ Felisa Larraiotz

#### Olague

Maria Esther Perez Trecu, abuztuaren 5ean zendu zen, 66 urtetan, Anue eta Lanzko idazkaria ohia.

Miguel Vidan Aguerre, abuztuaren 23an hil zen, 87 urtetan. **Larraiotzen etxeko** semea.



▲ Miguel Vidan

#### ULTZAMA Alkotz

Francisco Balda Erbiti, abuztuaren 17an hil zen, 87 urtetan.



▲ Francisco Balda

## Bizikleta gainean eskualdeko mendiez gozatzzen

Mendian bizikletaz ibiltzea gustuko duen taldetxo bat igandero elkartzen hasi zen duela urte pare bat Aroztegiko Izarpe Kanpinean. Izarbike deitu diote egitasmoari: lagun artean eta giro onean pedalei eraginez, eskualdeko txoko politak ezagutzen ibili dira uda osoan zehar. Eta aurrera begira ere, eguraldiak uzten duen bitartean behintzat, igandeetan elkartzen jarraituko dute. Interesa duen edonorentzat irekia dago taldea. Patxi Leoz Garciandia taldeko kidearekin hitz egin dugu.

### Noiz hasi zineten Izarbike proiektuarekin, eta nondik atera zen ideia?

Izarpe Kanpineko ohiko jendea gara, bertan ezagutu ginen denok. Duela bi urte inguru batzuk bizikletaz ateratzen hasi ziren, eta pixkanaka gure artean hitz egiten, geroz eta jende gehiago animatzen joan gara. Naturalki atera zen ekimena da, beraz. Momentu honetan whatsapp taldean 23 lagun gara, adin guztietakoak: 13 urte ditu gazteenak eta hirurogeitik gora zaharrenak.

### Ateraldi asko egin dituzue?

Bai, irteera dezente egin ditugu honezkero. Aurtengo udan, adibidez, igandero ateratzen saiatu gara, ekainetik irailera arte. Gutako zenbait astez ere ateratzen dira, lanak uzten badie, baina batez ere asteburuetan antolatu ditugu irteerak.

### Non ibiltzen zarete, beti eskualdean, edo atera izan zarete Ultzama aldetik kanpora?

Eskualdean zehar ibiltzen gara bereziki, baina atera izan gara

noizbait. Uda honetan egin dugun ibilbide luzeena izan zen Leurtzako urtegiara egin genuena: Izarpetik Eltzaburura joan ginen, handik urtegiara, eta gero buelta. Guztira 50 kilometro inguru egin genituen.

### Zenbat jende ibiltzen zarete? Eskualdeko jendea ere animatu da?

Batez ere kanpinaren inguruko jendea animatu da, asteburu pasa etorri direnak, ekimenaren berri izan eta batzera erabaki dutenak. Dena dela, deialdiak irekiak dira, eta eskualdeko edonor animatuko balitz ongi etorria izanen da: esan bezala igandeetan ateratzen gara, eta kanpinean galdetuta informazioa emanen diete.

### Zailtasunari dagokionez, zer nolako ibilbideak egiten dituzue?

Maila ezberdineko ibilbideak egin ditugu: egun batean 17 kilometrokoa, beste batean 30... Egunean gauden jendearen arabera aldatuz doa ibilbidearen zailtasuna ere. Ez gara talde bereziki gogor horietakoa, forma fisiko ezberdina dugu guztiok ere, eta jendearekin elkartzeko eta gustura ibiltzeko antolatzen ditugu ateraldiak. Beraz, geldialdiak egiten ditugu ibilbidean zehar denak elkartzeko eta norbait atzean gelditu bada lasai itxoiteko. Gainera, kanpinean bizikleta elektrikoak ere badira alokairuan, eta aukera hori ere badago: ibilbidea gogorra bada egunen batean, bizikleta elektrikoak alokatzekoa.



Adin eta kirol maila ezberdineko jendea batu da udako ateraldietara

# Zorionak Zorionak!



Zorionak Amairi!

: Izarbike



Zorionak Bahartxo eta Virginia!



Zorionak Mikel!



Zorionak Hegoi!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)





## Ainhoa Galain irazioztarra, leizetik oholtza gainera

Ez da ohikoena bost emakume oholtza ginean rock doinuak jotzen ikustea oraindik, zoritxarrez. Baina badira egoera horri buelta ematen ari diren taldeak, Leizeak adibide. 2019ko udan sortu zen musika taldea, eta ibilbide laburra izanagatik ere, dezente mugitu dira Euskal Herritik zuzeneko kontzertuak ematen. Beraien kanta propioak nahiz beste taldeen bertsiok jotzen dituzte, hala nola Kuraia, Belako, Kashbad eta beste hainbatena.

### Txikitatik gitarrari lotua

Gitarra jotzen du Leizeak taldean Iraizozko musikariak: "Txiki-txikitatik gustatu izan zait: umetan amari beti esaten nion gitarra nahi nuela. Hark pentsatzen zuen pasatuko zitzaidala... baina ez, hamar urterekin lehenbiziko gitarra erosi zidaten eta geroztik horretan nabil", dio. Autodidakta da Galain, inoiz ez du gitarra klase ofizialik jaso, baina Youtube bidez eta gitarra jotzen zuten lagunekin ikasitakoarekin ongi moldatu da.

Leizeak taldean hasi baino lehen, gainera, bakarka kontzertu akustikoak ere ematen zituen Galainek. "Beti izan dut talderen batean jotzeko gogoia, baina hau da lehen aldia eta oso gustura nabil. Egia da errazagoa dela taldean jotzea bakarka baino", kontatzen du.

### Oholtzak emakumeenak ere badirelako

Taldeakide guztiak neska izatea ez da kasualitatea, irazioztarrak azaltzen duenez: "Emakumeok ere oholtza ginean egon gaitezkeela eta kaña eman dezakegula aldarrikatu nahi genuen". Pixkanaka geroz eta gehiago dira musika eta zehazki rocka egiten duten emakumeak, eta Leizeak taldea han-hemen kontzertuak jotzen ibili denean erantzuna beti oso ona izan dela dio taldekideak. Tolosan, Gasteizen, Donibanen, Iraizotzen... dezente mugitu da urtebeteko ibilbidean taldea.

Konfinamenduan ere hainbat kontzertu zituzten ematekoak, baina denak bertan behera gelditu ziren. Orain pixkanaka berriz martxan jartzen ari dira, konfinamenduan sortutako



Bere kabuz ikasi zuen Ainhoa Galain irazioztarrak gitarra jotzen ▲

abestiei forma ematen, kontzertu berriak lotzen... Iruñeko Geltokin kontzertu akustikoa eman zuten abuztuaren bukaeran, esaterako, eta Josefina Lanbertori buruzko filmaren aurkezpenean ere egon ziren abesti bat jotzen.



Kontzertu akustikoa jo zuen Leizeak taldeak Esan Erraneko irratiri biran ▲

**Esan Erraneko irratitourraren bukaeran, Latasako Biltegian kontzertua eskaini zuen Leizeak taldeak, irailaren 26an. Giro bikainean eta musika onaz gozatuz agurtu genuen bira. Eskerrik asko Ainhoa eta neska!**

# EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

*Azaroaren 20tik abenduaren 4ra*



**EMAN IZENA!**

[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



## Liburutegiko ateak irekitzen dizkizugu

Liburutegia oraindik ez du funtzionatzen ohi bezala, baina alde zuzeneko hitzorduen bidez posible da hara sartzea

Hemendik urte batzuetara liburutegira ekarriko ditugu urte arraro honi buruzko idatziko diren edo idazten ari diren liburuak, eta irakurtzean irribarre batekin gogoratuko ditugu musukoak, gel hidroalkolikoa, ogia erosteko ilarak... Baina momentuz COVID kontrako protokoloak betetzea dagokigu. Eta liburutegian ere badugu gurea. Horretaz, esango dugun lehenengo gauza: liburutegia funtzionatzen ari da (maileguak egiten dira eta jasotzen dira maileguan egon diren liburuak edota liburuak, isunik eta arazorik gabe). Hori, eta, arauak denok betetzen baditugu, leku seguru bat dela.

### Horretaz aparte hau da udalak ezarri duen araudia:

-**Banaka** sartu ahalko da, baina soilik liburuak aukeratu eta maileguan hartzeko.

-Horretarako, nahitaezkoa izanen da **aurrez hitzordua eskatzea**: hitzordua posta elektronikoz eskatzen ahal da liburutegia@ultzama.es helbidera idatziz edo 948306747 astelehenetik ostiralera, 16:30etik 19:30era.

-**14 urte azpikoekin**, haiek laguntzeko edo haiendako liburuak aukeratzeko sartzen ahal da.

- Liburuak aukeratzeko egonaldia **gehienez 15 minutukoa** izanen da.

- Zer liburu hartu nahi den jakinez gero (gomendioak begiratu liburutegiko <https://ultzamakoliburutegia.blogspot.com>, edo, nahi duenak liburutegiko katalogo osoa eskatzen ahal du e-mailez), **hitzordua eskatzearekin batera, liburu eskatu** behar da, eta horrela prest egonen da hartzeko.

-Derrigorrezkoa da **musukoa** erabiltzea, baita zentro zibikoko atean eta liburutegiko sarreran egonen den **gel**-a ere.

-**Mailegu epeak** ohikoak dira: hiru aste eta gehienez hiru liburu.

-Liburuak itzultzeko ere aurrez hitzordua eskatu behar da; liburu liburutegiko sarreran egonen den kutxan utzi behar da.

-Itzultzen diren liburuak 72 orduz berrogeialdian egonen dira.

Liburuzainak ziurtatuko du gutxienez 10 minutuko denbora-tartea pasako dela erabiltzaile bati eta besteari emaniko hitzorduan. Hortaz, hitzordura puntual etortzea eskatzen da.

Gogorarazi nahi dugu liburutegiko blog-ean, sare sozialetan eta udalaren web orrian gomendioak eta baliabideak eskaintzen segitzen dugula etxetik kultura bitartekoez (liburuak, filmak, eta abar) gozatzen segitzeko.

Ezin da liburutegiko solairuan egon, liburutegiko liburu bat hartzeko edo itzultzeko, edo liburutegiko bilera gelara joateko ez bada (bilera, tailer edo klasera joateko). Horretarako, kate bat egonen da eskaileretan, eta soilik pasatu ahalko dira: liburutegira liburu bat hartzera, erreserbatu duten gelara edo jarduera batera; lehen solairuko komunera, tabernakoa itxita dagoenean."

## Zer egin behar da liburutegira etortzeko?

### Garrantzitsuenak:

Aldez aurreko hitzordua eskatzea, bai telefonoz  
948 306 747 / 610 159 353

bai emailaz  
liburutegia@ultzama.es



Gerezi Garaia, Lucio Urtubiari buruzko komikiaren azala



## OSTIRAL KULTURALAK

### Urriari: arte, zinema, musika, bidaiak eta komikiak

Zentro zibikoari dagokionez, bertako protokoloa ere kontsultatu daiteke (aforoak, nola sartu eta atera...) Ultzamako Udaleko webgunean. Baina ostiral kulturalak irailatik bere martxa berreskuratu dutela gogorazten dizuegu, eta ostiralerok liburuen aurkezpenak, kontzertuak, zinema, hitzaldiak... programatzen direla. Liburutegitik Dinamizazioaren batzordean partaide garen aldetik hilabete honetan zer jarduera dauden prest kontatu nahiko genuke (eta bide batez animatu etortzera edo bidaltzera zuen proposamenak : hilaren lehenengo asteartean biltzen gara liburutegian bertan, edo liburutegia@ultzama.es helbidera bidal dezakezue mezuak).

Urriari musika, literatura, komikia, artea... izango ditugu.

Hasteko, **urriaren 2an Ana Galar Lizasoko artistak erakusketa** gidatu bat egingo du bere lan batzuk aurkezteko eta azaltzeko.

Hurrengo ostiralean, **urriaren 9an, Con X The Banjo** rock taldeak kontzertu akustiko bat eskainiko digu. Perezeta, Tequila edo Tom Pettyrekin konparatu dituzte haien abestiak. Lau disko kaleratu dituzte Tuterakoek, eta bere azken lana argitaratzear dago, Epicentro izenekoa.

Beste musikari batek bisitatuko gaitu **16an, ostiralarekin: Iñigo Cabezafuego**, eta Atarrabiatik Armeniara furgonetaz egin zuen

bidaiak kontatuko digu, bere txakur Pachucorekin kopilotoren lekuan lagunduta. Bidean grabatu zituen soinuak eta bideoak ikusiko ditugu, underground munduko musikari handienetako hau.

**Urriaren 23an, Mikel Santos Belatzek Gerezi garaia** aurkeztuko du, Lucio Urtubia nafar anarkistari buruzko komikia. Lucio pasa den uztailean hil zen, eta bere azken urteetan Belatzekin harreman estua izan zuen. "Gerezi garaia" (edo El tesoro de Lucio gaztelaniaz) arrakasta handia lortu du, eta bost hizkuntzatara itzulua izan da. Bukatzeko, Amama filma ikusiko dugu, zineforum formatuan.

Aukera asko duzue, beraz. Animatu zaitzete. Behar ditugu liburuak, pelikulak... Kultura osasuna eta bizitza da.



**Patxi Irurzun**  
*Ultzamako liburuzaina*

Iñigo Cabezafuego ▼



▲ *Con X de Banjo*



# Ana Galar Ariztegi

## 'Nire hitzen itzalak' erakusketa, Larraintzarko zentro zibikoan

Arte Ederrak ikasi zituen EHU Ana Galar Ariztegi lizasoarrak, eta geroztik diziplina ezberdinak uztartuz hainbat erakusketa egin ditu han-hemen. Urriaren 2tik azaroaren 2ra bitartean Larraintzarko zentro zibikoan egonen da 'Nire hitzen itzalak' erakusketa ikusgai. Lan honen inguruan gehiago jakiteko berarekin elkartu gara.

### Zer topatuko du bisitariak 'Nire hitzen itzalak' erakusketan?

Nire emozioen biografia moduko bat da erakusketa, eta Gradu Amaierako Lanerako aurkeztu nuen poesia liburuan oinarritzen da. Hitzak eta irudiak uztartzen ditut bertan: garrantzitsuena poesia da, eta hitz horien erreflexuak lirateke beste lanak. Horregatik izenburua: nire hitzen itzalak.

### Diziplina ezberdinak uztartzen dira lan horretan, beraz?

Bai, lan mota ezberdinak egonen dira ikusgai erakusketan: argazkiak, pinturak, ilustrazioak... Batzuk modernitatearekin lotuta daude, beste batzuk errealitate sozialen ingurukoak dira, eta azkenak teknologiei eta gaur egungo baliabideei buruzko hausnarketak dira.

### Poesiak zure lanean garrantzia handia duela diozu. Euskaraz idazten duzu?

Lehen gazteleraz idazten nuen, baina duela bost bat urte gaixorik egon nintzen, ohean 10 egunez, eta orduan euskal musikako klasikoak gomendatu zizkidaten. Asko lagundu zidan horrek garai hartan, eta handik hasi nintzen pixkanaka euskaraz idazten.

### Erakusketa gehiago ere egin dituzu, ezta?

Bai, Uharteko Arte Garaikide zentroan 'Destellos de luz en la noche' erakusketa izan nuen erakusgai. Horretan ere argiekin eta itzalekin jokatzen nuen. Poesia liburua ere hiru ataletan banatu nuen, emozioak argitasunaren arabera banatzen ditudalako: argia, itzala eta argi-iluna. Uharteko erakusketa argiarekin lotua zegoen gehiago, eta oraingo honetan guztiak nahastu ditut, azken finean beltza edo iluna dena ezin delako ukatu, hor dago.

### Zer da artea zuretzat?

Kanpokoak sorrarazten didan kaosaren aurrean babesleku bat da artea niretzat. Nire bizitza da hau. Bestalde, karreraren eskulturarekin eta abstraktuarekin lanean ari nintzenean, pena handia ematen zidan nire gurasoek egiten nuena ez ulertzea: egiten nuena herritarragoa izatea nahi nuen, edonork ulertzeko modukoa izatea. Diziplina ezberdinetan horretan ari naiz. Dena dela, beti saiatzen naiz esanahi irekiko gauzak egiten.



Disziplina asko uztartzen ditu Galarrek bere lanetan ▲





**DEPORTE RESPONSABLE  
DEPORTE SEGURO**

**#HOY TOCA  
#GAUR BAI**

**HOY TOCA DEPORTE  
HOY TOCA SALUD**



**KIROLA, ARDURAZ  
KIROLA, SEGURTASUNEZ**



Instituto Navarro del Deporte  
Nafarroako Kirolaren Institutua

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030

# 2020ko abuztua

## 2020ko abuztuan (agorrilean) gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

### Jaiotzak:

#### ANUE Aritzu

Kattalin Obregozo Iraizotz, abuztuaren 20an sortu zen **Etxolazar** bordan, Patxi eta Amaia alaba.



▲ Aritzuko gazteena, Kattalin

#### BASABURUA Gartzaron

Ioar Legarra Martinez, abuztuaren 19an jaio zen, **Martxonean**. Eneko eta Ioritzaren semea.



▲ Eneko, Ioritz eta Ioar

#### IMOTZ Etxaleku

Miguel Irigoien Pino, abuztuaren 9an jaio zen, Maite eta Dumaren semea.



▲ Miguel, Maitearen besoetan

#### Latasa

Enaitz Amadoz Ramirez, abuztuaren 8an sortu zen, **Añadietan**. Aritz eta Oskiaren semea.



▲ Enaitz bere gurasoen besoetan

#### ULTZAMA Arraitz

Irati Osinaga Larraiotz, abuztuaren 18an sortu zen **Balentenean**, Imanol eta Amaia alaba.



▲ Irati bere gurasoekin

#### Urritzola

June Ezkurra Goienetxe, abuztuaren 23an sortu zen **Kortagain etxean**, Iñaki eta Raquelen alaba.



▲ June ttikia. Eta bere anaiak, Oier eta Unai kamarari begira algaraka.



Zorionak gurasoei



Abuztuan, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

#### OHARRA:

Heriotzak ikusteko pasa 25. orrialdera

#### Zenotz

Eire Iraizotz Garritz, abuztuaren 28an sortu zen, **Danboliñeneko bordan**, Miguel Maria eta Aitziberren alaba.



▲ Iraia eta Mikel, poz-pozik Eiderrekin, senide berria

### Ezkontzak

### Heriotzak:

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA



**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karricolaregoitz@gmail.com](mailto:karricolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



# Esan Erran irratiako Egun Erd irratsaida bueltan da!

**Astelehenetik ostiralera,  
Goizeko 10:00etatik 11:00etara zuzenean**

**Errepikapenak:  
Eguerdiko 13:30ean eta iluntzeko 20:00etan.**



 **esan 107.9**  
**erran irratia**

**Piztu**

**FM-ko 107.9a,**

**edo**

**klikatu**

**[amezi.eus/irratia/  
zuzeneko](http://amezi.eus/irratia/zuzeneko)**